Aurkezten diren errekurtsoei buruzko ebazpena emandakoan, etxebizitzaren esleipendun gertatzen diren pertsonak hautatzeko zozketari ekingo zaio. Notarioaren aurrean egingo da zozketa hori, babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko sailkapena behin eman ondoren.

Resueltos los recursos presentados, se procederá al sorteo para seleccionar las personas adjudicatarias de vivienda. Dicho sorteo se realizará ante Notario, una vez otorgada la calificación provisional de viviendas de protección oficial.

Etxebizitza baino eskaera gehiago izatera, itxarote-zerrenda osatuko dute gainontzeko eskaerak. Itxarote-Zerrendak bost (5) urtez iraungo du indarrean, promozioaren etxebizitza guztiak esleitzen diren unetik zenbatzen hasita. Behin indarreko epea amaitu ondoren, bete gabeko plazaren bat baldin badago, azkena adjudikatutako promozioko itxarote-zerrendan jarriko da.

En caso de existir más solicitudes que viviendas, las solicitudes restantes integrarán la lista de espera. La Lista de Espera tendrá una vigencia de cinco (5) años a contar desde el momento en que hayan sido adjudicadas todas las viviendas de la promoción. Una vez transcurrido dicho plazo de vigencia se acudirá en caso de vacante a la lista de espera de la última promoción adjudicada.

Itxarote-zerrenda eraginkortasun eta berme handiagoz betetzeko xedearekin, zerrenda hori osatzen dutenek Getxoko Udalarari jakinarazi beharko diote etxebizitzaz aldatuz gero, euren eskubideen interesetarako, dagozkion jakinarazpenak gauzatu ahal izateko. Aldaketa horiek jakinarazi ezean, ondore horietarako adierazten den azken etxebizitzara helaraziko dira jakinarazpenak eta ulertuko da jakinarazpena bi aldiz gauzatu ahalegindu eta alferrikakoa gertatu, eta horren ondoren Buletinean argitaratutakoan, interesdunak bertan behera utzi duela hasiera bateko eskaera.

Para mayor efectividad y garantía del cumplimiento de la lista de espera, los integrantes de la misma deberán informar al Ayuntamiento de Getxo los cambios de domicilio que efectúen a fin de poder realizarles las comunicaciones que a sus derechos interesen. En caso de que dichas modificaciones no sean notificadas, se realizarán las comunicaciones con el último domicilio señalado al efecto, entendiéndose que tras dos intentos fallidos de comunicación y la posterior publicación en el Boletín el interesado ha desistido de su solicitud inicial.

f) Etxebizitzaren esleipena.

f) Adjudicación de las viviendas.

Hautatuen zerrenda osatzen dutenei etxebizitzak

Se procederá a la adjudicación de viviendas a los

esleitzeari ekingo zaio. Zozketa bidez gauzatuko da, familiaren osaera egitarauari eta etxebizitzaren azalerari nola egokitzen zaion kontuan hartuta. Etxebizitzaren esleipena behin eginda dagoenean, ez da baimenduko esleipendunen artean etxebizitzaren aldaketa/trukerik.

Ondoren, hautatuen zerrendak onartuk dira, zozketaren emaitzaren arabera. Zerrenda horiek Udaletxeko Iragarki Taulan, udaleko Web Orrian eta Lurralde Delegazio guztietako tauletan argitaratuko dira.

Ebazpen horren aurka, birjarpeneko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Alkateari.

#### g) Esleipena legezkoko egitea

Esleitzen zaien etxebizitza zein den jakinaraziko zaie hautatuak gertatzen diren guztiei, eta hamabost eguneko epea emango zaie esleipena onartzen duten ala uko egiten dioten adieraz dezaten.

Hautatua gertatzen denak hamabost eguneko epean onartzen duela edo uko egiten diola adierazi ezean, etxebizitzarik hartuko ez duela ulertuko da.

Zehazten den epean, etxebizitzari berariaz uko eginez gero, Udalak esleipena baliogabetuko du eta, itxarote-zerrendaren arabera dagokionari eskainiko dio.

Etxebizitza onartu ondoren, adjudikaziodunak, lanak egin dituen eraikuntza-enpresa azalera-hartzailearekin kontratu pribatua legeztatu behar du. Kontratu hori eraikuntza-enpresak adjudikaziodunari sinadura eskatzen dion egunetik, gehienez hilabete bateko epean egin behar da. Kontratu pribatu hori legeztatzen ez bada, adjudikaziodunak etxebizitzari uko egin diola ulertuko da, eta, hori dela eta, adjudikazioa baliogabetu egingo da, eta, itxarote-zerrendaren

integrantes de la lista de seleccionados. Se realizará por sorteo teniendo en cuenta la adecuación de la composición familiar al programa y a la superficie de la vivienda. Una vez realizada la adjudicación de las viviendas no se admitirá el trasvase/intercambio de las mismas entre los adjudicatarios.

Posteriormente, se procederá a aprobar las listas de seleccionados conforme al resultado del sorteo. Dichas listas serán publicadas en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, Web Municipal y en el tablón de cada Delegación Territorial.

Contra la Resolución podrá interponerse recurso de reposición ante el Alcalde.

#### g) Formalización de la adjudicación

Se procederá a notificar a cada uno de los seleccionados la vivienda que le ha sido asignada, concediéndoles un plazo de quince días para que comunique la aceptación o renuncia de la adjudicación.

En caso de que el seleccionado no manifestara su aceptación o renuncia en el plazo otorgado de 15 días se entenderá que renuncia a la vivienda.

Si en el plazo fijado renunciara expresamente a la vivienda, el Ayuntamiento procederá a revocar la adjudicación, ofreciéndola a quien, conforme a la lista de espera, correspondiera.

Una vez aceptada la vivienda el/la adjudicatario/a deberá formalizar el contrato privado con la constructora superficiaria de la obras. Dicho contrato habrá de ser firmado como máximo en el plazo de un mes desde que la constructora requiera al / a la particular adjudicatario/a, en caso de no formalizar dicho contrato privado se entenderá que renuncia a la adjudicación realizada procediéndose por tanto a revocar la adjudicación, ofreciéndola a quien,

arabera, beste norbaiti eskainiko zaio.

conforme a la lista de espera correspondiera.

Indarrean dagoen araudia betetzeko, kontratu pribatuari Eusko Jaurlaritzak emango dio oniritzia. Eusko Jaurlaritzak oniritzia ematen ez badio, adjudikazioa baliogabetu egingo da, eta itxarote-zerrendaren arabera, beste norbaiti eskainiko zaio etxebizitza.

En cumplimiento de la normativa vigente el contrato privado será visado por Gobierno Vasco. Si se denegara dicho visado se procederá a la revocación de la adjudicación, ofreciéndola a quien, conforme a la lista de espera correspondiera.

Etxebizitza eskuratzen dutenek sustatzaileari etxebizitzaren prezioa eta aurkeztutako eskaintzan ezarritako kontura egindako kantitateak ordaindu behar dizkiote, baina, beti ere, indarrean dauden legeak errespetatu beharko ditu.

Los futuros adquirientes deberán abonar al promotor el precio de la vivienda las cantidades a cuenta establecidas en la oferta presentada que en todo caso deberá respetar la normativa vigente aplicable.

#### h) Deialdiaren atzera egitea.

#### h) Retirada de la convocatoria

Eskaera-kopurua etxebizitzena baino txikiagoa izango balitz, Getxoko Udalak beretzat gordeko luke deialdi hau bertan behera uzteko eskubidea, edota bestelako beste edozein hautazko erabaki hartzekoa.

En el supuesto de que el número de solicitudes fuese inferior al de viviendas, el Ayuntamiento de Getxo se reserva el derecho a suspender la presente convocatoria, así como a adoptar cualquier otro tipo de decisión discrecional.

### **VI- AZALERA-ESKURATZAILEEI APLIKA DAKIEKEEN ERREGIMENA.**

### **VI.- RÉGIMEN APLICABLE A LOS ADQUIRENTES -SUPERFICIARIOS.**

#### **VI.1. ETXEBIZITZAREN OKUPAZIOA.**

#### **VI.1.- OCUPACIÓN DE LA VIVIENDA.**

Esleipendun gertatzen diren familia-unitateen bizileku ohiko eta iraunkor beharko dute izan etxebizitza hauek. Administrazio jarduleak eskumena dauka edozein unetan eskuratzaileei exijitzeko betekizun hori benetan betetzen dela egiazta dezatela.

Las viviendas deberán ser destinadas a residencia habitual y permanente de las unidades familiares adjudicatarias. En cualquier momento la Administración actuante estará facultada para exigir a los adquirentes, la acreditación del efectivo cumplimiento de este requisito.

Zinpeko adierazpena gauzatu beharko dute esleipendunak, eta adierazpen horren bidez, konpromisoa hartuko dute bizigarritasunaren udal baimena eman eta, gehienez, 3 hilabeteko epean, beraien ohiko etxebizitza bertan finkatzeko.

Los adjudicatarios deberán efectuar una declaración jurada mediante la cual se comprometen a fijar su vivienda habitual en el plazo máximo de 3 meses a partir de la concesión de la licencia municipal de habitabilidad.

#### **VI.2. ETXEBIZITZEN PREZIOA.**

#### **VI.2.- PRECIO DE LAS VIVIENDAS.**

Edonola ere, etxebizitzaren prezioaren zehaztapena, indarrean dagoen legeriak promozio pribatuko babes ofizialeko etxebizitzetarako gehienezko prezio gisa ezarrita dauzkan mugen arabera gauzatuko da. Ondoren zehazten diren balizkoak bereiztuko dira:

En todo caso la determinación del precio de las viviendas se efectuará conforme a las limitaciones establecidas por la legislación vigente como precio máximo para las viviendas de protección oficial de promoción privada. Distinguiendo los supuestos especificados a continuación:

- Gainazalerarako Eskubidearen lehenengo Eskualdaketa.

- Primera transmisión del Derecho de Superficie.

Elementu pribatiboen lehenengo eskualdaketa, etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioan ezartzen den prezioaren arabera egingo da.

En el caso de la primera transmisión de los elementos privativos ésta se realizará de acuerdo con el precio establecido en la calificación provisional de las viviendas.

- Gainazalerarako Eskubidearen bigarren eta ondorengo Eskualdaketak.

- Segundas y sucesivas transmisiones del Derecho de Superficie.

Azalerara eskubideak indarrean dirauen denbora guztian beroriek daukaten prezioa, etxebizitzari, lokalei, garajeei, trastelekuei eta eranskinei, eskualdaketa gauzatzen den unean metro koadro azalera erabilgarri bakoitzeko aplikatzen zaien modulu haztatua eta Getxori aplikatu dakiokkeen modulu haztatua biderkatuta ateratzen dena izango da, eta halakorik izan ezean, B.O.E. etarako hitzartuta dagoena aplikatu ahal izango da, Eusko Jaurlaritzak ematen duen B.O.E. en sailkapen-zedula eskuratzen deneko datan aplikagarri suertatzen den legeriaren arabera, K.P.I. arekin eguneratuta.

El precio de transmisión de éstos durante toda la vigencia del derecho de superficie será el que resulte de aplicar a las viviendas, locales, garajes, trasteros y anejos el módulo ponderado por metro cuadrado de superficie útil en el momento en que se realice la transmisión aplicable a Getxo, y en su defecto será aplicable lo estipulado para las V.P.O. según la legislación aplicable en la fecha de obtención de la cédula de calificación provisional de V.P.O. otorgada por el Gobierno Vasco actualizado con el I.P.C.

Azalerarako Eskubidearen lagapenaren aurrean gaudela, salmentaren azken prezioa honako formula hau aplikaturik aterako da:

Por encontrarnos ante la cesión del Derecho de Superficie el precio final de venta será el resultante de aplicar la siguiente fórmula:

$$\frac{(\text{Precio V.P.O.}^*) \times (\text{M}^2 \text{ elemento privativo}) \times \text{Años restantes cesión D}^\circ \text{ Superficie}}{50}$$

$$\frac{(\text{B.O.E. ren Prezioa}^*) \times (\text{elem. privat. M}^2) \times \text{Azalera. Esk. Lagatzeko falta diren urtean}}{50}$$

Birgaitze eta, halakorik izanez gero, eskritura-gastuak gehituko zaizkio salmenta-prezioari,

Al precio de venta se le añadirán los gastos de rehabilitación, escrituración si los hubiera,

B.O.E. ei buruzko araudian ezarrita dauden mugak errespetaturik eta haratago joan gabe. respetando y sin sobrepasar los límites establecidos en la normativa de V.P.O.

Hala ere, eta baldin eta eskualdaketa Azalerarako Eskubidea eskuratzen denetik lehendabiziko hamar urteen barruan egiten bada, honako hauek hartu beharko dira kontuan: No obstante, y siempre que la transmisión se realice dentro de los primeros diez años desde la adquisición del Derecho de Superficie habrá que tener en cuenta que:

- Eskuratzailleak lehenago bildu den formulak aplikatuta suertatzen dena ordainduko du. - El adquirente abonará lo que resulte de aplicar la fórmula recogida anteriormente.

- Azalerarako eskubidearen jabeari, ondorengo kopuru bien artean suertatze dena ordainduko dio Udalak (A ken B): - El Ayuntamiento abonará al superficiario-transmitente la diferencia que resulte entre las dos cantidades siguientes (A menos B):

A. Eskualdatzen duen azalerarako eskubidearen jabeak hasiera batean ordaindutako prezioa, K.P.I. eta, halakorik izanez gero, birgaitze eta eskritura-gastuak gehituta, B.O.E. en gehienezko topea errespetaturik: A. El precio abonado inicialmente por el superficiario-transmitente incrementado con el I.P.C. y los gastos de rehabilitación, escrituración si los hubiera, respetando el tope máximo de V.P.O.:

Erosketa-Prezioa + K.P.I. + Gastuak (Birgaitze, eskriturak) ≤ B.O.E. Precio de Compra + I.P.C. + Gastos (Rehabilitación, escrituración,...) ≤ V.P.O.

B. Eskuratzailleak ordaindu beharreko dirua. B. El precio a satisfacer por el adquirente.

*Argitzeko oharra.*

*Nota aclarativa.*

*Edonola ere, B.O.E. direla-eta, eskualdaketa gertatzen denean indarrean dagoen legeriak ezarrita dauzkan gehienezko topeei begiratuko zaie eta, halakorik ezean, Eusko Jaurlaritzak ematen duen B.O.E. en behin-behineko sailkapen-zedula eskuratzearan indarrean dagoelarik, aplikagarri gertatzen dena, K.P.I. arekin eguneratuta.* *En cualquier caso se respetarán los topes máximos establecidos por la legislación vigente para V.P.O. del momento de la transmisión y en su defecto el vigente aplicable a la obtención de la cédula de calificación provisional de V.P.O. otorgada por el Gobierno Vasco actualizado con el I.P.C.*

*Aplika daitekeen K.P.I., beti ere, E.A.E. ko aurreko urtekoari dagokiona izango da.* *El I.P.C. aplicable será en todo caso el referente al correspondiente a la C.A.P.V. del año anterior.*

### VI.3. SALMENTAREN MUGAK.

### VI.3.-LIMITACIÓN DE LA VENTA.

Plegu honek aipatzen duen etxebizitzaren eta eranskinen azalerarako eskubidea, "inter vivos" baino ezin izango da eskualdatu, bigarren edo geroagoko besterentzetan, Udalak izendatzen duen/dituen pertsonari/pertsonari. Halaber, Getxok Udalak, beharrezko irizten badiu, berak El derecho de superficie de las viviendas y sus anejos a que hace referencia este Pliego, sólo podrá transmitirse "inter vivos", en segundas o posteriores enajenaciones, a la persona o personas designadas por el Ayuntamiento de Getxo. Asimismo el Ayuntamiento de Getxo en

eskuratuko du eta, ondorioz, jabari osoa bateratu egingo da.

caso de considerarlo necesario procederá a la adquisición él mismo consolidándose por tanto el pleno dominio.

Aipatzen den Eroslehentasunerako eta Atzera egiteko Eskubideari men egin beharko diote, beti ere, eskualdaketa hauek.

Estas transmisiones habrán de respetar en todo caso el Derecho de Tanteo y Retracto establecido.

#### VI.4.- MORTIS-CAUSA ESKUALDAKETA, EPAILETZA-PROZEDURA, BURUTZAPENERAKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURA.

#### VI.4.- TRANSMISIÓN MORTIS-CAUSA, PROCEDIMIENTO JUDICIAL, PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO DE EJECUCIÓN.

Azalerarako eskubidea erabilia eraikitzen diren aprobetxamendu independenteko elementuen mortis-causa eskualdaketa gertatzen denean, eta baldin eta Eusko Jurlaritzak, berari dagokion Eroslehentasunerako eta Atzera Egiteko Eskubidea erabiltzen ez badu, honako hauek egin ahal izango ditu Udalak:

En caso de transmisión mortis-causa de los elementos privativos de aprovechamiento independiente construidos en ejercicio del derecho de superficie, y siempre en caso de no ser ejercitado por Gobierno Vasco el Derecho de Tanteo y Retracto que le corresponde, el Ayuntamiento podrá:

- Azalera-eskuratzailearen oinordekoa edo oinordekoak mantendu, baldin eta Plegu hauetara bilduta dauden betekizunak betetzen badituzte.
- Eskuratzaileei buruzko Pleguan ezarrita dauden baldintzak betetzen dituen eskuratzaile bat aurkeztu.
- Udala berak eskuratzeko eskaintza plegu honetan aurreikusi den formula aplikaturik suertatzen den balioan.

- Mantener al heredero o herederos del superficiario fallecido, siempre que cumplan los requisitos contenidos en los presentes Pliegos.
- Presentar un adquirente que reúna las condiciones establecidas en el Pliego de Adquirentes.
- Ofrecerse a adquirirlos el mismo Ayuntamiento, por el valor resultante de la aplicación de la fórmula prevista en el presente pliego.

Erregimen berbera aplikatuko da, elementu pribatiboak burutzapenerako epailetza edo administrazio-prozedura baten ondorioz eskuratzen direnean.

El mismo régimen se aplicará cuando la adquisición de los elementos privativos se produzca como consecuencia de un procedimiento judicial o administrativo de ejecución.

#### VI.5. EROSLEHENTASUNERAKO ETA ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA.

#### VI.5.- DERECHO DE TANTEO Y RETRACTO.

Plegu honetan ezarritako eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubideak, nahitaez, eskritura publikoetan eta erregistroko inskripzioetan jaso beharko dira.

Los Derechos de Tanteo y Retracto establecidos en el presente pliego necesariamente habrán de recogerse en las escrituras públicas e inscripciones registrales.

## VI.6. BALDINTZEN BERRIKUSPENA.

### *a) Berrikuspen-epeak*

Baldintzen lehendabiziko berrikuspena Sustatzaile-Eraikitzaileari edo, hala denean, aurreragoko eskuratzaileri kontratuaren xede den elementu pribatiboaren gaineko Azalerarako Eskubidea erosten zaionetik, hamar urte igarotakoan gauzatuko da.

Bost urterik behin gauzatuko dira bigarren eta ondorengo egiaztapenak, hau da 15, 20, 25, 30, 35, 40, 45 eta 50. Urteetan.

### *b) Egiaztatu beharreko datuak.*

Getxoko Udalak etxebizitzaren esleipenerako prozedura erabaki zuten betekizunen berrikuspenari ekingo dio, honak zehaztaperik hauek eginda:

#### *b.1. Diru-sarrerak.*

Bizikidetzaren unitatearen urteko diru-sarrera haztatuak guztira, ezin izango dira berrikuspena egiten denean BOEei eusteko indarrean dagoen gehieneko diru-sarreraren mugatik gorakoak izan edo, halakorik ez, promozio honen elementu pribatiboaren lehenengo eskualdatzean izango duen mugatik gorakoak, KPIarekin gehituta.

Diru-sarreraren konputua egitean aintzat hartuko den elkarbizitza-unitatea osatzen duten kideen kopurua, berrikuspena egiten denean dagoena izango da.

#### *b. 2. Etxebizitza ez izatea.*

Bizikidetzaren unitatearen kide bate ere ezin izango da, ezin titularen bidez, etxebizitza baten titularra izan, ez udalerrian bertan, ez bertatik kanpo, dela jabe gisa, dela jabe soil gisa, azalera-

## VI.6.-REVISIÓN DE LAS CONDICIONES.

### *a) Plazos de revisión*

La primera revisión de las condiciones se realizará transcurridos diez años desde la adquisición al Promotor, o en su caso, al anterior titular, del Derecho de Superficie sobre el elemento privativo objeto de contrato.

La segunda y posteriores comprobaciones se realizarán quinquenalmente, es decir, en los años 15, 20, 25, 30, 35, 40, 45 y 50.

### *b) Datos a comprobar.*

Se procederá por parte del Ayuntamiento de Getxo a la revisión de los requisitos que determinaron el acceso al proceso de adjudicación de viviendas, con las siguientes especificaciones:

#### *b.1. Ingresos.*

Los ingresos ponderados anuales totales de la unidad convivencial, no podrán ser superiores al 150% del límite máximo de ingresos para poder acceder a viviendas de V.P.O. vigente en el momento de realizar la revisión, o en su defecto, del límite máximo en primera transmisión de los elementos privativos de la presente promoción incrementado con el I.P.C.

El número de miembros de la unidad convivencial a considerar en el cómputo de ingresos será el existente en el momento de realización de la revisión.

#### *b. 2. Carecer de vivienda.*

Ningún miembro de la unidad convivencial podrá ser titular real de vivienda ni en el municipio ni fuera del mismo por cualquier título, ya sea en régimen de propiedad, nuda

eskubidearen arabera, usufruktua edota jabaria mugatzen duen beste edozein eskubide errealean bidez, baldin eta portzentajea ondasun edo eskubide osoaren ehuneko berrogeita hamarretik (%50) gorakoa bada.

*c) Bete ez egitearen ondorioak.*

Okupatzen irauteko beharrezko diren betekizunak bete ezean, eskuraturiko Azalerarako Eskubidea iraungi egingo da. Eskubidea iraungitzearen ondorioz, okupatzaileak/ek higieztina hustu egin beharko du/te, berrikuspena gauzatzen denetik zenbatzen hasi eta, gehien jota, 5 urteko epean.

Halaber, eta irtenarazte horren zioz, erosleari atzera itzuliko zaio dirua, plegu honetan adierazten den formula erabiliko delarik horretarako.

Iraungipenaren eta ordainketaren ondorioz, Getxoko Udalak, berak aukeratu ahal izango du, Eusko Jaurlaritzak Eroslehenbidasunerako eta Atzera Egiteko daukan Eskubidetik salbu, edo 50 urteak betetzen diren bitartean beste azalera-eskuratzaile bat izendatu edo, bestela, jabari osoa bateratu azalerarako eskubidea iraungitzen zaion elementuaren gainean.

Bertatik irteteko gehienez ematen den 5 urteko epea igarotakoan, okupazioari eusten baldin bazaio, 50 euroko zigorra ezarriko da atzerakuntza gertatzen den egun bakoitzeko (zenbateko hori, eskubidea amaitzen deneko K.P.I.aren arabera eguneratuko da), hori guztia, okupatzaileak bertatik jaurtitzeko legezko diren ekintzei eusteko Udalak daukan aukeraren kalterik gabe.

**VI.7.- JABETZA HORIZONTALARI BURUZKO MENDEKOTASUNA.**

Plegu honen aurreko ataletan agindutakoaren arabera.

propiedad, derecho de superficie, usufructo o cualquier otro título real limitativo de dominio en un porcentaje superior al cincuenta por cien (50%) del total del bien o derecho.

*c) Consecuencias del incumplimiento.*

En caso de no reunirse los requisitos necesarios para el mantenimiento en la ocupación se producirá la extinción del Derecho de Superficie adquirido. Como consecuencia de la extinción del derecho el/los ocupante/s deberá/n abandonar el inmueble el plazo máximo de 5 años desde la fecha de revisión.

Asimismo, y por tal desalojo, el comprador será reembolsado en función de la fórmula reseñada en el presente Pliego.

Como consecuencia de la extinción y pago, el Ayuntamiento de Getxo podrá a su elección, y a salvo del ejercicio por Gobierno Vasco del Derecho de Tanteo y Retracto, optar por designar un nuevo superficiario por el tiempo restante hasta los 50 años, o consolidar el pleno dominio respecto del elemento cuyo derecho de superficie se extingue.

La persistencia en la ocupación transcurrido el plazo máximo de 5 años para el desalojo, conllevará una penalización por día de demora de 50 euros (importe que será actualizado con el I.P.C. a la fecha del cese del derecho), todo ello sin perjuicio de entablar por parte del Ayuntamiento las acciones legales de lanzamiento.

**VI.7.- SOMETIMIENTO A LA LEY DE PROPIEDAD HORIZONTAL.**

Según lo establecido en anteriores apartados del presente Pliego.

## VI.8.- HIGIEZINAREN MANTENUA

Azalera-eskuratzailea derrigortuta egongo da Azalerarako Eskubidearen xede den Higiezinaren elementu komunak eta pribatiboak baldintza egokietan mantentzera eta etxebizitza, hitzartzen den erabilerarako, bizigarritasun-baldintza behar diren bezalakoetan edukitzera.

Eraikinaren artapena bermatzeko xedearekin, azalera-jabeen komunitateak honako hauek egin beharko ditu:

a) Urteroko aurrekontua idaztean, higiezina behar bezala artatzeko mantenu-fondoaz zuzkitzea, beraren zenbatekoa ez delarik etxebizitzako m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko oinarritzko prezioaren %1 baino gutxiago izango, eraikinaren oinarritzko azpiegituraren konponketetarako.

b) Azalerarako eskubidea ematen denetik 20 urte betetzen direnean hasita, urtero diru kopuru bat inbertitzea, etxebizitzako m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko, une horretan indarrean dagoen oinarritzko prezioaren %0,5 baino gutxiago izango ez dena, eraikinaren oinarritzko azpiegituraren konponketetarako.

Era berean, kasuz kasu legalki aginduko diren beste betebeharrak batzuei arreta jarri beharko dizkio.

## VI 9.- ERAIKINAREN LIBURUA

Etxebizitzarako Eraikuntza Liburuari buruzko, Urriaren 21eko 250/2003 Dekretuak dionaren arabera, jabeen erkidegoak legeak ezarritako zehaztapenak bete beharko ditu.

## VI.10.- HIGIEZINAREN EGOERAREN EGIAZTAPENA.

Udalak beretzat gordetzen du higiezinaren

## VI.8.- MANTENIMIENTO DEL INMUEBLE.

El superficiario estará obligado a mantener en adecuadas condiciones los elementos comunes y privativos del Inmueble objeto de Derecho de Superficie y conservar la vivienda en adecuadas condiciones de habitabilidad para servir al uso convenido.

Con el fin de garantizar la conservación de la edificación, la comunidad de propietarios superficiarios deberá:

a) Proveer, al redactar el correspondiente presupuesto anual, un fondo de mantenimiento para la adecuada conservación del inmueble, en cuantía no inferior al 1% del precio básico por m<sup>2</sup> útil de vivienda en reparaciones de la infraestructura básica de la edificación.

b) Invertir, anualmente, a partir de los 20 años cumplidos de la concesión del derecho de superficie, una cantidad no inferior al 0,5% del precio básico vigente en ese momento por m<sup>2</sup> útil de vivienda en reparaciones de la infraestructura básica de la edificación.

Igualmente deberá atender a otras obligaciones que en su caso legalmente se establezcan.

## VI 9.- LIBRO DEL EDIFICIO

Asimismo y a la vista del Decreto 250/2003, de 21 de octubre, sobre el Libro del Edificio destinado a vivienda, la comunidad de Propietarios deberá completar las especificaciones legalmente exigidas.

## VI.10.- COMPROBACIÓN DEL ESTADO DEL INMUEBLE.

El Ayuntamiento se reserva la facultad de

egoera ikuskatzeko eskumena, bai eta azalera-  
eskuratzaileei higiezina artatzeko beharrezko  
gertatzen diren lanak gauzatzeko errekerimendua  
egitearena. Azalera-eskuratzaileek ezetz esanez  
gero, udalak berak betearazi ahalko ditu,  
ondoren hartuko duelarik horrek eragiten dituen  
gastuen ordaina.

#### VI.11.- ETXEBIZITZAREN EGOERA AZALERARAKO ESKUBIDEA IRAUNGITZEAN.

Azalera-eskuratzaileak, Azalerarako Eskubidea  
dena delakoagatik iraungitzen denean, hartu  
zuen bezala itzuli beharko du etxebizitza,  
denboraren poderioz edo ekidinezinezko  
zergatien zioz galtzen dena edo hondatzen dena  
izan ezik.

Kalterik izatera, Azalera-Eskuratzaileak kalte-  
ordaina eman beharko dio udalari, eragiten  
dituen kalteengatik.

#### VI.12.- ERRESKATE-BALIOA.

Azalerarako Eskubidea ezarritako gehieneko  
epea igaro delako iraungitzen denean, eta  
etxebizitzaren artapen-egoera egokia dela behin  
egiaztatuta, Azalera-eskuratzaileak bere  
egunean, kontratua izenpetzean,  
ordaindutakoaren %10 izango den Erreskate-  
Balioa jasotzeko eskubidea izango du.

#### VI.13.- BALDINTZEN TRANSKRIBAKETA.

Azalerarako eskubidea eskuratzen dutenek Plegu  
hauetara bilduta dauden baldintzak eta mugak  
transkribatu beharko dituzte ematen diren  
azalerarako eskubidearen zati bateko  
eskualdaketetarako egiten diren agirietan eta,  
horrela, ondorengo eskuratzaileak eta  
eskuratzaileordeak Plegu honetara bilduta  
dagoenera lotetsiko dituzte muga horiek.

#### VI.14.- LURRAREN SALMENTA.

inspección del estado del inmueble así como la  
de requerir a los superficiarios la realización de  
obras necesarias para la conservación del  
inmueble. En caso de negativa de los  
superficiarios el Ayuntamiento podrá ejecutarlas  
él mismo resarcándose posteriormente de los  
gastos ocasionados.

#### VI.11.- ESTADO DE LA VIVIENDA A LA EXTINCIÓN DEL DERECHO DE SUPERFICIE.

El superficiario deberá devolver la vivienda, al  
extinguirse por cualquier causa el Derecho de  
Superficie, tal como la recibió, salvo lo que  
hubiese perecido o se hubiera menoscabado por  
el tiempo o por causa inevitable.

En caso de existir daños el Superficiario deberá  
indemnizar al Ayuntamiento por los perjuicios  
que se hayan podido ocasionar.

#### VI.12.- VALOR DE RESCATE.

En caso de extinción del Derecho de Superficie  
por el transcurso del plazo máximo establecido,  
y una vez comprobado el buen estado de  
conservación de la vivienda, el Superficiario  
tendrá derecho a un Valor de Rescate consistente  
en el 10% del precio abonado en su día, a la  
firma del contrato.

#### VI.13.-TRANSCRIPCIÓN DE CONDICIONES.

Los adquirentes del derecho de superficie  
deberán transcribir las condiciones y  
limitaciones convenidas en estos Pliegos en los  
sucesivos documentos de transmisión parcial de  
derecho de superficie que se otorguen, de  
manera que dichas limitaciones vinculen a los  
sucesivos adquirentes y subadquirentes al  
cumplimiento de lo recogido en este Pliego.

#### VI.14.- VENTA DEL SUELO.

Emakida bitartean, azalera-emaileak (Getxoko Udala) azalera-jabetzaren titularrei lurra saldu ahal izango die, aske hitzartzen dituzten eran eta moduan.

#### VI.15.- AZALERARAKO ESKUBIDEA IRAUNGITZEKO ZIOAK.

Legez ezarrita daudenak ez ezik, ondoren zerrendatzen diren zergatiak ere izango dira Azalerarako eskubidearen iraungitzaile:

- Azalerarako eskubidearen emakidaren iraunaldiaren bukaera. Horrela denean, Getxoko Udalak bere egingo du eraikita dagoena, lehiaketa publikoaren deialdian zehazten diren irizpideekin bat etorrira, eta iraungitzen den azalerarako eskubidea dela-eta, dauden eskubide pertsonalak edo errealak deuseztatu egingo dira.

Hala ere, Udalak baimena eman ahal izango dio azalera-eskuratzaileari okupatzen duen etxebizitzan iraun dezan, errentamendu erregimenean edo pareko egoeran, ondorengo baldintza hauek betetzen diren bitartean:

- Eraikinen egoerak erabilpenari bide eman diezaion.
- Hirigintza-planeamenduak ez dezala lurren zertarakoa aldaraz.
- Onuradunak Baldintzen Berrikuspenean agintzen duen VI.6. atalean aurreikusita dauden baldintzak bete ditzala.
- Onuradunak agiri honetara bilduta dauden betebeharrak errespetatu eta bete izana.

- Azalera-eskuratzaile gisa irauteko beharrezko diren baldintzak bete ez izatea, Plegu honetan xedatutakoaren arabera.

Durante el transcurso de la concesión el superficiante (Ayuntamiento de Getxo) podrá vender a los titulares de la propiedad superficiaria el suelo, en la forma y modo que libremente convengan.

#### VI.15.- CAUSAS DE EXTINCIÓN DEL DERECHO DE SUPERFICIE.

Serán causa de extinción del Derecho de Superficie además de las legales las establecidas a continuación:

- La terminación del plazo de duración de la concesión del derecho de superficie. En cuyo caso, el Ayuntamiento de Getxo hará suyo lo edificado, de conformidad con los criterios que se han determinado en la convocatoria pública del concurso y quedarán resueltos los derechos personales o reales existentes sobre el derecho de superficie extinguido.

No obstante, el Ayuntamiento podrá autorizar al superficiario a permanecer en la ocupación, bajo el régimen de arrendamiento o similar y mientras se cumplan las condiciones siguientes:

- Que el estado de las construcciones permita su utilización.
- Que el planeamiento urbanístico no haya alterado el destino del suelo.
- Que el beneficiario reúna las condiciones previstas en el apartado VI.6 regulador de la Revisión de Condiciones.
- Que el beneficiario hubiese respetado y cumplido las obligaciones contenidas en este documento.

- El incumplimiento de las condiciones precisas para permanecer como superficiario según lo dispuesto en estos Pliegos.

#### VI.16.- BALDINTZAK EZ BETETZEA.

Okupazioari, eskualdaketari eta plegu hauetan eta udal-promozioa osatzen duten gainontzeko agirietan berariaz aintzat hartzen ez diren kontu guztiei dagokienean, babes ofizialeko etxebizitzak araupetzen dituen arautegia betetzearen mende geratuko da berariaz kontratuen eraginkortasuna.

Plegu honetara edota babeseko etxebizitzei buruzko arautegi orokorrera bilduta dauden baldintzetatik edozein bete ezean, edo ordainketarako ezartzen diren baldintzei aurre egin ezin izanez gero, kontratua deuseztatu egingo da, interesdunari entzun ondoren.

#### VI.17. INTERPRETAZIOA

Getxoko Udalak beretzat gordetzen du plegu hau interpretatzeko eskubidea, baldin eta bertan ezartzen denari edo beraren interpretazioari buruzko zalantzarik sortzen bada.

#### VI.16.- INCUMPLIMIENTO DE CONDICIONES.

La eficacia de los contratos quedará expresamente sometida al cumplimiento de la normativa que regula las viviendas de protección oficial, respecto de ocupación, transmisión y cuantos otros extremos no estuviesen expresamente contemplados en los presentes pliegos y resto de documentación que integra la promoción municipal.

El incumplimiento de cualesquiera de las condiciones recogidas en este Pliego o en la normativa general de viviendas de protección, o la imposibilidad de hacer frente a las condiciones de pago establecidas, dará lugar a la resolución del contrato, previa audiencia del interesado.

#### VI.17.- INTERPRETACIÓN

El Ayuntamiento de Getxo se reserva el derecho de interpretar el presente pliego en el caso de que surgieran dudas sobre lo establecido en el mismo o sobre su interpretación.